

# xare

Kultura digitalean  
euskarazko erabilpena  
sustatzeko azoka-jaialdia

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



- 1. Egitasmoa**
- 2. Nori zuzendua**
- 3. Helburuak**
- 4. Azoka**
- 5. Egitaraua**
- 6. Webgunea: software katalogoa eta gidak**
- 7. Egitasmoaren izena eta irudia**

# 1. Egitasmoa

Gaur egun, bizitzako edozein arlotan Informazioaren Teknologia Berriek (aurrerantzean IKT) garrantzi handia dute. IKTen erabilpen intentsiboak alor askotan eragindako aldaketak direla medio, gaur egun kultura digitala bezala ezagutzen dugunak oso esparru ezberdinak biltzen ditu.

IKTen erabiltzaile fidelenak gazteak direla jakinik, etorkizunean joera hau areagotuko dela garbi dago.

Horregatik, **IKTen alorrean eta orokorrean kultura digitalean, euskararen erabilera sustatzeko** helburuarekin, **XARE azoka-jaialdia** abian dago.

Azoka-jaialdiaren lehen edizioa **Donostiako Kursaaletan** ospatuko da aurtengo **azaroaren 23 eta 24an**. Bi egun bete iraungo ditu, ostirala eta larunbata.

Azoka-jaialdiaren lehen eguna ostirala izatea aukeratu da lan munduari (enpresa zein administrazioa) eta ikastetxeei begira. Ostiral arratsaldea eta larunbata, ordea, publiko orokorrari begira hautatu da. Nagusiki gazteei zuzenduta. **Sarrera irekia eta doan** izango da bi egunetan.

Azoka-jaialdiaren bi egunetan honakoak izango dira osagaiak:

- Stand **azoka**: IKTen alorrean euskara erabiltzen duten enpresa zein instituzioei euren lana eta zerbitzuen berri eman ahal izateko postuak egongo dira.
- Gazteei zuzendutako kultur eta aisialdiko ekimen **egitaraua**.
- Xare **webgunea**. Euskarazko IKT baliabide eta lanabes eskaintzarekin.

## 2. Nori zuzendua

Egitasmo hau **IKTak erabiltzen dituzten euskaldun guztiei** zuzenduta dago. Hartzaileak izan daitezke partikularrak, elkarteak, enpresak edo administrazioa. Lanerako zein aisialdirako. Oro har, **gazteek** egiten dutenez IKTen erabilpen handiena, espero da beraiek izatea hartzaile nagusiak:

1- **Publiko orokorra:** egun IKTen erabilpena horren orokortuta dagoenez, Xare egitasmoa edozein hiritar euskaldunari zuzenduta dago.

2- **IKTen sektoreko enpresak:** egitasmo hau elkarlanean burutuko da IKTen alorrean euskaraz lan egiten duten beste eragile

batzuekin batera. Egitasmo parte hartzailea izatea nahi dugu, alor honetan dihardugun eragile guztiontzat onuragarria.

3- **Enpresak, Instituzioak eta elkarteak:** Eragile hauek IKTen erabilpen intentsiboa egiten dutenez, XAREren hartzaile garrantzitsuak dira. Nagusiki IKT arduradunak, baina orokorrean langile edo partaide guztiak.

### 3. Helburuak

Egitasmo honen helburu nagusia **IKTen** alorrean **eta** orokorrean **kultura digitalean, euskararen erabilpena sustatzea** da. Hauek lirateke helburu zehatzak:


- Euskarazko **kultura digitala suspertu**.
- Honezkero dagoen **euskarazko softwarea ezagutarazi**.
- Euskarazko softwarearen **erabilpena sustatu**.
- Softwarea **euskaratzea bultzatu** (azpimarragarria da Librezale elkartearen alor horretan egiten ari den lana).
- Euskarazko IKTen **sektoreari ikusgarritasuna eta balorea eman**.
- **Erreferentzia** gune bat sortu hiritarrentzat.
- Ordenagailu zein mugikorretan euskarazko sistema eragile eta softwarea instalatu eta erabiltzeko **ohitura sortu eta indartu**.

IKTen erabilpen handiena **gazteek** egiten dutenez, nagusiki beraiengan indartu nahi da euskarazko erabilpena.



## 4. Azoka

IKT sektoreko edota IKTen bidez zerbitzua euskaraz eskaintzen duten enpresen standak bilduko ditu azokak. Bertan enpresek euren produktu zein zerbitzuen erakusketa, informazioa edota salmenta eskainiko dute.



## 5. Egitaraua

**Gazteei** zuzendutako **kultur eta aisialdiko** ekimen egitaraua eskainiko da azoka-jaialdiaren bi egunetan zehar. Besteak beste, honako ekimenek osatuko dute egitaraua:

- **Hitzaldi eta mahai inguruak:** gazteak, teknologia berriak eta euskararen erabilpenaren inguruko hitzaldi zein mahai inguruak antolatuko dira.
- **Install festak:** hiritarrei euren ordenagailuak gerturatu eta bertan egongo diren teknikari bolondresen laguntzarekin euskarazko softwarea instalatzeko gonbitea luzatuko diegu, bertatik atera daitezten ordenagailu zein mugikorrekin ahal bezain “tuneatuta” euskaraz.
- **Software eta zerbitzuen aurkezpenak:** enpresei euren programak eta zerbitzuak aurkezteko aukera luzatuko zaie.
- **Kultura digitalarekin lotutako sorkuntza eta egitasmoak.**

## 6. Webgunea: software katalogoa eta gidak

Badira euskarazko softwarearen erabilpena handiagoa ez izateko hainbat arrazoi:

- Ordenagailu zein mugikor-tabletak erosterakoan, **sistema eragilea eta software guztia %100ean gazteleraz instalatuta** dator eta bat ere ez euskaraz.
- Euskaldunok ordea, lan hori hartu beharra dugu eta **ordenagailuak euskaraz konfiguratzeke ohitura ez dago sobera hedatua** gure artean.
- Euskaraz eskuragarri dagoen software eta baliabideen inguruan **ezagutza eskasa** dago.
- Ez dago erreferentzia gune garbi eta osatua euskaraz eskuragarri dagoen software guztia biltzen duena modu argi, txukun eta erabilgarrian.

Badira software katalogo batzuk, baina ez dira behar bezain ezagunak, erabilgarriak eta ez dute biltzen euskarazko software guztia.

Horregatik Xare webgunean:

- Egun IKTen alorrean dauden baliabide guztiak bilduko ditugu hiritarrentzat erreferentzia gune bilaka dadin.
- Horretaz gain, ordenagailu zein mugikorretan euskarazko programak instalatzeko gidak sortuko dira. Horrela, hiritarrek aparailu berri bat eskuratzen dutenean webgunera jo ahalko dute, jakinik bertan aurkituko dutela euskaraz eskuragarri dagoen software guztiaren berri eta hau instalatzeko gida.

Lanabes praktiko bat garatzea da helburua. Jendeak erraz aurkitu eta ulertzeko programak eta aplikazioak instalatu ahal izateko eman beharreko urratsak. Xare egitasmoak indarra jarriko du sustapenean eta erabilerreztasunean.

Era berean, gune parte-hartzailea izanen da. Erabiltzaileei aplikazioen inguruan iruzkina idazteko aukera emanen zaie eta formulario bat erraztuko da erabiltzaileek euskarazko programa edo bertsio berrietaz jakinarazteko aukera edukitzeko.



## 7. Egitasmoaren izena eta irudia

Egitasmoari honako izena eman diogu: **XARE**.

Izen egokia deritzogu hitzak iradokitzen duen sinbologiagatik:

- Sare hitzaren esanahiak (hariak, sistemak...) oso lotuta daude teknologia berriekin.
- Ingelesez, share konpartitzea esan nahi duelako...
- Pilota jokoaren modalitate baten izena da. Ludikoa da.

Eta hauxe da garatutako irudi grafikoa:



[eragin.com](http://eragin.com)